

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Orozko



Aurkibidea

Udalerria: Orozko

Sarrera



Orozko Bizkaiko hegoaldean dagoen udalerria da, Arratia-Nerbioi eskualdekoa eta lurralde historiko osoan bigarren handiena da azalerari dagokionez, Karrantza ondoren. Arrazoi geografikoak direla medio, hala ere, Arabako Aiaraldea eskualdearekin hartu-eman handia du, eta batzuetan eskualde horren parte gisa hartzen da. Udalerrri hauek ditu mugakide: Iparraldean, Arakaldo, Arrankudiaga, Zeberio eta Artea; ekialdean: Areatza eta Zeanuri; mendebaldean: Laudio, Aiara eta Amurrio (Araba); eta hegoaldean, Amurrio eta Zuia (Araba). Auzo eta elizate asko dituen herria da, hona hemen garrantzitsuenak: Albizua, Bengoetxea, Beratza, Gallartu, Goikiria, Ibarra, Jauregi, Katadio, Mantzarbeiti, Murueta, Olarte, San Martin, Urigoiti, Urrexola, Zalao eta Zubiaur (udaletxea). Bertoko jarduera ekonomikoa lehen sektorean biltzen da. Batez ere abeltzaintza intentsiboa, ukuluraturua eta haragi ekoizlea aurki dezakegu, basoen ustiapenarekin batera.

- **Biztanleak:** 2.470
- **Euskaldunak:** %61,29

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **18**
- Zintak: **25**
- Pasarteak: **57**
- Transkribatutakoak: **19**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **57**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Ermua eta Eitzako euskara
- Euskal Herriko Ahotsak
- Fondo partikularrak
- IRALeren Bizkaiera Bilduma

Hizlariak

Pako Aretxaga

Maria Astobiza

Jesus Mari Bernaola Artetxe (1944)



Orozkoko Olabariandikoa baserrian jaio eta hazi zen. Aita ere bertakoa zuen eta ama Zeberion jaioa, baina Zollon bizi izandakoa. Umetatik izan zuen baserriarekiko lotura eta bertan jaso zituen aiton-amonengandik aintzinako kontu eta ipuinen berri, kultur-transmisioa gauzatuz. Eskola bukatu ostean, 14 urterekin Laudiora joan zen 17rekin Gasteizera joan aurretik. Gasteizen serigrafia-tailer batean bi urtez aritu ostean, Carrión musika-denda ezagunean aritu zen 3 urtez instrumentuak konpontzen zein saltzen. Azkenik, 38 urtez aritu zen Beyena esnetegian beharrean. Elkarrizketa egin zitzaion garaian, ikastetxez ikastetxe zebilen umeak bere ipuinekin liluratzen ipuin-kontalari bezala. Guk ere jaso ditugu ipuin horiek, baserriko-tresnei buruzko ezagutzekin batera. 20 urte inguru zituela Arrigorriagara joan zen bizitzera. Berba egiterakoan euskara batuaren eragina du; hala ere, jaioterriko euskara bizi-bizi darabil.



Angela Bilbao Olabarria (1926)

Polonia Etxebarria (1932)



Sofia Etxebarria Zaballa (1926)

Egur-Igartu etxekoa.

Alejandra Ganzabal Lazkano (1923)

Orozkoko Gallartu auzoan jaio zen. Ama zuen bertakoa, eta aita Urigoitikoa. Zazpi seme-alaba izan zituzten. Sei urtetik hamarrera auzoko eskolan ikasi zuen. Laudiora joan zen neskame erdara ikastera. Gasteizen ere neskame jardun zuen, harik eta 19 urterekin Orozkoko Ibarra auzoko Legorburu baserriko Pedro Etxebarriarekin ezkondu zen arte. Legorburun izan zituzten lehen hiru seme-alabak. Senarrak Extremaduratik ekarritako txerrikumeak hazten zituen, basoan haritz ezkurretan larreratuz, eta Orozkoko basoak txiki geratu zitzaizkienean, Gorbealara eraman zituen txerrikumok. Orduan joan ziren Zigoitiako Zubibarri baserrira bizi izatera, etxean zituzten hogeitahirekin batera. Hemen beste zazpi seme-alaba izan zituzten.



Florentzio Goti Olabarria (1923)

Juantxu Ibargallartu Añibarro (1937)

San Martin auzoko Garailatz baserrian jaio, hazi eta bizi izandakoa da Juantxu. Aita zuen bertakoa eta ama Areatzakoa. Zazpi neba-arrebak laster gelditu ziren aita barik eta amak gogor egin behar izan zuen lan denak aurrera ateratzeko gerraoste gogorrean. Ondorioz, beraiek ere umetatik hasi ziren baserriko beharretan. Nahiz eta ikasteko aukera izan Juantxu ez zen eskola zalea. Basoko beharretan, paper-lantegian eta lantegian ere aritu zen, baina batik bat ahuntzak eta behiak lagun zituela axuriak hazten zituen.



Mikaela Ibargallartu Añibarro (1929-2024)

1929. urteko San Migel egunean jaio zen San Martin auzoko Garailatz baserrian. Aita zuen bertakoa eta ama Areatzakoa. Zazpi neba-arrebatan bigarrena eta alaba nagusiena izan zen. Eskolara sei urtetaik 13ra joan zen, 13 urte zituela bere aita hil baitzen eta umezain hasi behar izan zuen esneak banatzen eta baserriko beharretan aritzen zen bitartean. 1950an neskame joan zen Bilboko familia batengana eta urte askoan ibili zen familia hura zerbitzatzen: Bilbon, Abadiñon, Bartzelonan, Madrilan...

Pedro Ibargallartu Añibarro (1928-2014)

San Martin auzoko Garailatz baserrian. Aita zuen bertakoa eta ama Areatzakoa. 1983. urtean bere anaia [Juantxugaz](#) batera ardiak eskilatzen zebilela egindako grabaketa bat da hau.

Agurtzane Intxaurreaga Etxebarria (1966)



Orozkon jaioa, guraso biak bertakoak zituen; baserritarrak. Hiru ahizpatan erdikoa. Hiru urterekin hasi zen auzoko eskolara joaten. Ume-umetatik dantza eta kantua gustatzen zitzaizkion. Kazetaritza ikasi zuen Leioan, eta AEKn ere hasi zen lanean; bere lehen soldatarekin, 17 urterekin, dantza ikasten hasi zen. 80ko hamarkadaren hasieran Antzerti eskolara joan zen, antzerki-ikasketak egitera, Donostiara, eta ordutik bertan bizi da. Ibilbide oparoa izan du aktore eta zuzendari moduan. Telebistan, zineman eta antzerkigintzan jardun du, bereziki antzerkigintzan. 1989an Hika Teatroa sortu zuten (2005etik berak gidatzen du). Antzerkigintzari buruz egin diogu elkarrizketa, batez ere genero-ikuspegia lantzeko.

Miren Intxaurreaga Pikaza

Ugalde baserrian jaioa. Hamasei urterekin Ibarra auzora joana. Neskame gisa ibili zen gaztetan. Nekazaria.

Isabel

Orozkoko San Martin auzokoa. 1983. urtean joraketan zebilela egin zitzaion grabaketa.

Justo Respaldiza Aramendi (1915)

Orozkoko San Martin auzokoa. [Basauriko euskararen azterketa linguistikoa](#) lanean parte hartu zueneko da grabazio hau.

Ines Ugarriza Arrizabalaga (1912-1997)

Ines Orozkon jaio zen eta 24 urterekin ezkondu zen Ermura. Elkarrizketa egin zitzaionean 80 urte zituen.

Dominika Uriondo (1924)

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Maistra eskolan eta haren senarra ortuan

- **Hizlaria(k)**: Ganzabal Lazkano, Alejandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ORO-001/002
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:02:23. **Bukatu**: 00:04:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Zazpi urterekin hasi zen eskolan. Hasieran euskaraz eta gero, gerra ondoren, erdaraz. Gallartuko maistra baten gizonak herriak utzitako ortuan lan egiten zuen. Diru gutxi irabazten zuten maisu-maistrek eta ortua ondo zetorkien bizitzeko. Orduan ikusi zituzten lehenengoz zerbak (azelgak).

Transkripzioa

- Eta eskolan han Gallartuko auzuen, bertan ibilli ziñan?
- Bai, bertan.
- Zenbat urtekin hasi ziñan eskolan?
- Hamar urtera arte.
- Alaba: Ama, aber ama, hamar urte baiño lehen joan ziñen eskolara.
- Hamar urtera arte eskolan ibili nitzan.
- Hamar urtera arte? Zenbat, seikin edo hasitta? Zenbat urtekin hasitta?
- Nik ez dakit ba, sei-zazpiez, zazpiez-edo.
- Eta eskolak euskeraz edo erderaz izaten zian?
- Lehenango, euskera eiten gendun ta gero, erdera.
- Bixeta eitten zenduen zuek, eskolan?
- Lehenengo, euskera ta gero, erdera eiten gendun.
- Eskolan?
- Eskolan.
- Euskera ta erdera?
- Zu, zu ibili, ibiliko ziñan eskolan, Republikan, ezta? Bai, zuk hogeta, Republika hogeta hamaikan etorri zan, eta zuk urte horrekin eskolan zenbiltzen. Zuk ordun zeunkazun zortzi urte. Eta maixua nungoa zan?
- Maixue? Juan zan hara biziten, kanpotarra zan. Ta joan zan andreak ta han eukin aun familie. Ta hak eiten auen, andreak eskola ta gizonak ortu eiten auen. Ze ordun maistrak gitxi iribazten orien. Ta gizonak ortue, ze eon zan etzean, ba emon otsien ortue. Ortue, ta han iminten auen. Ordun ez genduzen guk azalgak ekosten. Hor lehenago porrue ta azea iziten zan; ta horrek, imini auezan azelgak. Ta ortue landuten auen.
- Ze, zan maistrue edo maistria zan, zuena?
- Maistria.

- A, ta gizonak eitten auen?
- Gizonak ortue. Gizona ez zan izin maixue. Andrea zan maistria. Ta hak eiten maistra ta gizonak, ortue. Ta ortuegaz emoten otsen jaten.

1.2. Hurrengo maistra Ibarratik Gallartura egunero oinez

- **Hizlaria(k):** Ganzabal Lazkano, Alejandra
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ORO-001/003
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:04:39. **Bukatu:** 00:07:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Maistraren eta senarraren izenak. Ibarraraino (Orozkoko beste auzo bat) lagundu zieten gurasoek gauzak eroaten, alde egin zutenean, pena handia hartu zutelako. Gero Ibarratik etortzen zen oinez beste maistra bat Gallartura. Isabel Larrakoetxea, izena.

Transkripzioa

- Ta goguen daukezu izena, maistrien izena?
- Engrazia, izin behar auen.
- Engrazia?
- Ta gizona Justo.
- Justo, kontxo. Ta nundik etorri zien?
- Nik ez dakit, ordun umia nintzen-ta. Horrek gero, ni akordetan naz, ba joan ziran ta eroan orien gurdi beten eroan orizan, gurdi beten eroan orizan ba, ez dakit, hor ze ohi-edo ze eukingo orien. Ta gurian ama ta danak lagundu otsien berreraíño, Iberreraíño. Pene emon otsien martxeteagatik- eta.
- Ta burdixen fan zien?
- Gurdiegaz joan ziran Iberrera. Ze itxuria Iberrera, ordun ez eguan ba kamiñoa. Kamiñoa ez egoan. Ta ordun, idiekaz eroan orien. Ba muebleren batzuk edo eukien arroparen batzuk. Ta eroan orien Iberrera. Ta martxau orien. Don Justo, ai! Don Justo.
- Kontxo. Eta horrek fan zienien, ze etorri zan beste maistra bat?
- Gero bai. Iberrekoa zan. Iberrean ein zen maistra, maistra ein zen. Ta ha joaten zan egun guztitan oiñez zerara, Gallarture; ta Gallartutik joaten zan, etzera gero.
- Ta Ibarra hori zer zan, Orozkoko beste auzo bat?
- Bai. Esate baterako, hemetik Villarrealera lez, hemetik Villarrealera lez, hemen eskolea, ezta? Villarrealera, lez. Ta, Villarraldik egun guztitan, hona eskolia emoten.
- Etorten zan oiñez?
- Oiñez joaten zan. Ta etzera joaten zan oiñez. Ta jaten auen /jataun/... eskoleak eukin auen suetea. Ta han, ingo auen bazkarie edo eiten auen. Eskoleari ein otsien suetea. Han imini otsien txapea, ta han ingo auen jatekoa.
- Oseake, bertan bazkaixe ta bertan preparatzen zien?
- Berak eiten auen maistreak. Ta maistrea zan Iberrekoa. Esate baterako, zerekoa, Villarrealgoa lez.
- Eta horrek maistrok, bigarren maistra horren izena be, goguen daukazu?

- Isabel.
- Isabel?
- Bai, ze, zan nire gizonen edadekoa. Isabel. Horrek, ziren Larrakoetxeas.

1.3. Ezkur-uruna gozogintzarako

- **Hizlaria(k):** Ganzabal Lazkano, Alejandra
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ORO-001/021
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:34:44. **Bukatu:** 00:35:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Herriko emakume batek ezkurra bildu eta gozotegi batera eramaten zuen. Ezkur-irina pastelgintzarako erabiltzen zen.

Transkripzioa

- Ni akordetan naz, horreik [...] Muruko, molinerun alabak? Horrek kuxitan oriela ezkurre... Ta salduten auela pastelerira, pastelak eiteko ezkurrek.
- Ezkurrakin, pastelak eitten dira?
- Hori, esan orien. Zan honango ezkurre, itzela handik. Ta salduten oriela pastelerira ezkurre. Urune ein ta pastelak eiteko.
- Anda! Oseake, haritz-ezkurrakin uruna ein ta gero harekin pastela?
- Pastelak.
- Hori sekula entzun barik neukan.
- Ba hori. Oindo bizi dire, Muruko molinerun alaba bi dauz. Horreik esaten orien.
- Ta eurek errotan ixoten eubein?
- Eurek eroaten orien, salduten orien horra pastelerira. Ta basoan batuten orizan ezkurrek.
- Ya, baiña ezkurrok ixo eurak eitten zittuen errotan? Urune eurek ataten euben?
- Eurek ez.

2. Baserria

2.1. Astoaz esnea eroaten Ibarrara

- **Hizlaria(k):** Ganzabal Lazkano, Alejandra
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ORO-001/004
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:07:00. **Bukatu:** 00:09:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Pare bat behi izaten zuten eta esnea astoaz eramaten zuten Ibarrara. Gero handik Orozkoko Zubiaurren zegoen Sindikatora eta handik Bilboko zentralera joango zen esnea. Hilean-hilean

kobratzen zuten. Astoan joaten zen, beti beldurrez. Orozkoko Zubiaurren zegoen Sindikatoa.

Transkripzioa

- Eta zuek etxian, ganaue ta bazekotsen? Ganauek-eta?
- Bai, beti. Beti eukin doguz /duz/ behi bi edo hiru. Ta esne apurtxu bet ataten gendun. Ta haxeaz bizi gintzen.
- Ta ardirik-edo?
- Guk ez, guk ez. Guk ez geunkan ardirik. Guk esne apur bet ataten gendun, ta eroaten gendun Iberrera. Hori, esaten neune, hemeti Villarrealera lez. Astoan, kantinean eroaten gendun esnea. Ta han itxi esnea, ta gero, ba, kobretan gendun gero, hurrengo hilean.
- Hillien behin kobreten zeuben?
- Bai esnea. Sindikato, sindikato esaten jaken lehenago. Ta sindikaton, ba hara joaten zian, esnea kobretan.
- Orduen zuek, etxerik etxe ez zeuben erueten esnia? Sindikatuk banatzen zeuben?
- Sindikatora. Ta sindikatoak eroango auen Bilbora-edo. Ni ordun... umiak gintzen, ta ordun pentseu bez.
- Baiña zeu be fango ziñan batzutan ezta astuakin?
- Ordun ba astoakin. Ta bildurre. Ta bildurre eukiten gendun umiak gintzen. Ta umiak bildurre eukiten gendun. Bai.
- Ta hortik hamendik Villarrealerako besteko bidia bazan ba, biajetxoa, ezta?
- Bai. Ta zan ba, kamiñoa bakarrik, kamiñoa. Ta ba ordun umiak gintzen ta bildurre eukiten gendun. Ba bildurre umiak, bildurregaz.
- Ta zu bakarrik faten ziñan?
- Bai. Ni bakarrik ta beste bat, beste auzoko batzuk egon ziran gorago. Ta aite eroaten aurien bakotxa bere...
- Astoakin?
- Astoakin.
- Zenbat, zenbat juntaitten ziñen? Sindikatora orduko, zenbat asto juntaitten ziñen bidien?
- Ez, guk Iberrera eruaten gendun. Ibarrara. Ta Iberrekoak eroaten auden sindikatora.
- Ta sindikatue nun euen ba?
- Zubiaurren.
- Zubiaurren? Ta oin Zubiaurre zer da, beste auzo bat? Orozkoko beste auzo bat?
- Orain ez dakit sindikatoak segitan badau han. Guk, urten gendun handik. Handik, hemetik urte asko darogu.

2.2. Gari-lanak

- **Hizlaria(k)**: Ganzabal Lazkano, Alejandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ORO-001/011
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:17:27. **Bukatu**: 00:20:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Garia

- **Laburpena:** Garia eta artoa hatzen zuten baserrian. Garia errotan eho, bahetu, eta zahia txerriak hazteko erabiltzen zuten. Garia eskuz jotzen zuten harri gainean. Gero behiekin larrainean triluaz. Lapiko batez ibili behar izaten zuten atzetik segika, txiza eta kaka jasotzeko. Gero haize-makina batez garbitzen zuten garia. "Errentoreak", maizterrak ziren.

Transkripzioa

- [...]zuek etxian Gallartoren garixa ta artua ta holako gauzak ereitten zittuen?
- Horregaz bizi gintzen. Gari apur bet kuxitan gendun, ta ahie jo ta ogie eiteko. Ta... lehenago, errotara joaten gintzen astoakaz. Astoan eroaten zan, garie eroateko ta artoa. Ta gero, zeragaz, ba...
- Galbaiaz?
- Galbaiaz erain, ta paretan zan zahie. Ta zahieri, emoten gontsen txarrieri. Ta haik lodituten geuntsezan ta ha, ta hagaz bizi gintzen.
- Eta zuek garixa jo nun eitten zeuben? Garixa jo?
- Jo eiten gendun [kollak]
- Eskuz?
- Kollak estu, ta jo harrin. Ta gero garbiten... zerean galbaiaz.
- Zuk beti jo dozu garixa, eskuz?
- Gero, gero, gero ein orien, azaba-ondoak esaten otsien.
- Azaba-ondoak?
- Azaba-ondoak, esaten otsien. Ba, honan, handik eiten zian, ta estu, ta ebagi trontzadereaz. Ta puntia, ta eroan, ha, zerera, esaten otsien... ortun modun. Etorriko jat gero burure. Ta hai idiekaz edo behiegaz tridu imini, ta ha, tridun ganean, harrie imini, ta eroaten gendun zer bat, lapiko zahar bataz, txixe eiten eronean behiek, eta kaka eiten eronean. Ta haxe. Gero hai garbitu. Gero, hortik makina batera- edo ekarri orien. Ta han eroaten zan, garie garbitu. Ereiten zontsen...
- Haize-errotie, ezta?
- Bai. Eroaten zontzen eskuegaz ta haxeak, haxeak garbituten euen garie-ta. Halan bizi gintzen.
- Ta orduen zuk, lelingo goguen daukezuna zan, eskuz jotzen zeubela. Eta gero, trilluakin?
- Gero klaro, klaro.
- Ta zuenean, matxakie ta makiña horrek ez zielako?
- Makinia... auzokoren batena ekarriko gendun, guk geuk ez geunken. Gu errentoreak gintzen, ta errentoreak ordun, ez geunken gauzerik; uzabak eukingo orien, baia guk ez.

2.3. Indabak eta patatak egunero

- **Hizlaria(k):** Ganzabal Lazkano, Alejandra
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ORO-001/014
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:24:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
 Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
 Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

- **Laburpena:** Indabak jaten zituzten egunero. Afaltzeko etxean berakatz-zopak ia beti. Baina etxe gehienetan patatak (porru-patatak). Txerria hiltzen zutenean erregaloak banatzera joaten zen pozik, ontza bat txokolate ematen ziotelako. Baina ez zuen momentuan jaten, etxera eramaten zuen.

Transkripzioa

- Eta orduen zu umie ziñanien ta zein zan jatordu normala?
- Ba indababak. Egun guztitan, indababea. Ta gaubetan, gure etxean beti, berakaz-zopea. Baia jendeak, askok patatak. Baia kostunbrea zan, berakaz-zopea gabea. Ni akordetan naz aitek iminten auen han ure, honan lapiko baten, ta ure irikiten eon ordun, botaten otsozan /botatotsozan/ ogiek, ogiek tostado, haik tostaute, haxe jaten gendun. Pentsau bez hoberik. Pentsau bez geuze zeragorik. Eta ni akordetan naz, txarrie hil egiten gendunean, auzotara eroaten gendun ordun, mortzillia, mortzillia ta urdai apur bet. Ta emoten ostien, etze batzutan, ontza bat txokolate.
- Zuek zenbat etxetara eruatzen zeuben mortzillia?
- Ba, Sautu esaten gontsen, Sautu. Bat zan [...] ta gero auzoko bi edo bi edo hiru edo hiruri edo holan.
- Ta onenak, ezta?
- Bai.
- Eta haek, batzutan...
- Eron ordun, ontzatxu bet txokolate, parrea bere ez e?
- Baiña zu, desidittten ezta noz [...]?
- Deseetan haxe txokolatea eroateko etzera.
- Baiña, jan edo etxera eruatzen zeuben?
- Etzera eroaten gendun. Nik etzera eroaten nendun.
- Eta gero, hori jateko zan edo txokatatie eitteko esniakin?
- Ni, ez naz akordetan baina nik pentsetan dot, jan eingo gendun ze, txokolatea eiteko, ontzatxu beteaz...

2.4. Etxeko atea giltza barik, ez zegoen lapur beldurrik

- **Hizlaria(k):** Ganzabal Lazkano, Alejandra
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ORO-001/019
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:30:40. **Bukatu:** 00:32:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Legorburun aitagarreba eta eurak, senar-emazteak, bizi ziren hasieran. Etxeko atea giltza eman barik izaten zuten, ez zegoen ezelako lapur beldurrik.

Transkripzioa

- Eta gero Legorburura, Legorburura fan ziñanien, zenbat jende bizi zan etxien?
- Amagiñarraba.
- Amagiñarreba?
- Besterik ez.
- Besterik ez? Koiñaturik ez euan etxian, koiñatarik?

- Iñor.
 - Ta amaiñarrebía ta zeuek bixok. Eta hor etxe horretan ganauek-eta bauezen?
 - Bai. Ba, hor eukin genduzen lau edo bost behi. Ez dakit zenbet eukiko gendun behiek.
 - Alaba: Hemen behean? Hemen?
 - Hor, hor bizi gintzen. Ta beste etzean, bizi zen uzaba. Ta aituzu zelango bizimodue eukiko gendun, etzean giltzerik ez gendun eukiten iñoz. Etzea itxiten gendun karrabilliaz, ta gau ta egun. Pentseu bez giltzerik. Ta oin uzabandren alaba bat bizi da eta esaten deu: "nik Alejandra, ezin dot sinistu bere. Zelan bizi gintzen, giltze barik!".
 - Alaba: ama, zabalik hemen ere bai.
 - Baiña orduen jente gutxiao. Oin, bakizu zenbat jente bizi dan? Orduen, lau katu ziren. Jente gutxiau ta ondraua be bai. Baina orduan gaizkilliak egongo ziren, ezta? Lapurrak-eta ez zien egoten orduen?
 - Lapurrik? pentsau bez. Ez gendun pentsetan, lapurrek.
 - Eta jittanuek-eta?
 - Ordun, jitanoik ez gendun handik ekosten. Hemen bai, baia han ez. Orozkon jitanoik ez gendun ekosten.

2.5. Senarrak txerriak Extremaduratik ekarri basoan hazteko

- **Hizlaria(k)**: Ganzabal Lazkano, Alejandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ORO-001/020
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:32:11. **Bukatu**: 00:34:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Ardirik ez zuten Legorburun. Gizona txerri salerosketan hasi zen Extremadurara atzera-aurrerak eginez, Uribe kamioilariarekin sozio. Bi txerri klase ekartzen zituen, grisa (koipe gutxikoa) eta gorria (koipe askokoa). Basoan ezkurra janez hazi eta gero saldu egiten zituzten.

Transkripzioa

- Eta Legorburu honetan, ardirik edo bazeunken, bazeuketzen?
 - Ardirik ez geunken.
 - Ez? Behixek bakarrik?
 - Behiek bakarrik.
 - Eta txarrixa ta bestalakuek, ezta?
 - Txarrie loditu etzean.
 - Alaba: Eta aita Uriberekin hasi zen ya juaten Extremadurara ama. Handik.
 - Handik joan zan.
 - Orduen zure gizona norbaittekin sozio ein zan, ezta?
 - Alaba: Uribe. Julio Uribe.
 - Uribe.
 - Julio Uribe? Eta ze negoziotan jardun zien horrek?
 - Uribek, eukin auen kamioak.
 - Kamioiak euken?
 - Ta trasportera. Ta ordun hori trasportea hartu orien txarrik handik ekarteko. Harantzta eroango auen gatza edo ez dakit zer. Nik ez dakit, nik

ez dakit, ze eroango euren.

- Alaba: Ibilten zien beti txarriak ekarten, ta batzuk kamioian ta beste batzuk trenean.

- Osake, orduen, haruzkotan gatza eruen eta honuzkotan txarrixakin etorri? Eta gero txarri horrek, horrek zer zien, pata negra edo holakuak edo?

- Batzuk zian grisek. Batzuk zian grisek eta beste batzuk gorrik. Ta horrek gorrik zian koipe asko eukin orinak. Eta besteak, Koipe... grisek zian koipe gitxigo eukienak. Zian, klase bi.

- Ta gero, txarri horrek hamen saldu eitten zittuen?

- Bai, saldu ta.

- Alaba: Ez, ez, ez, ama. Lelengo, basora.

- Loditu arte okelea. Ze makal-makal ekarten auezan, makal.

- Baiña txarrikumak zien edo txarriak?

- Txarrik. Txarrik.

- Alaba: Ama, txarrikumak eta makalak eta txikiak. Gero, egoten ziran...

- Ordun eruten zittuen basora, ezkurak, haritz-ekurak jatera, ezta?

- Alaba: Bai, baiña millaka e?

- Gero, gero saldu matarixan edo karnezerixetan edo zelan saltzen zeuen?

- Karnazerira. Txorizeruri saldu otsizan batzuk. Orozkoko... hil ei zen, hil ei zen txorizerue.

- Alaba: Bai. Eske, horren okela, oso... hobe zela, horregatik.

- Oseke, bertako txarrixek baiño okela gozuaue emoten ebein...

- Ba, klaro. Basoak... ezkurregaz, ezkurregaz.

- Eta lehen haritzak be, asko egongo zien, ezta? Ezkurra be ugari?

- Ordun, bai. Oin, ez dau ezkurrik. Nik ez dakit zegatik.

3. Lanbideak

3.1. Laudiora "erdiera" ikastera

- **Hizlaria(k)**: Ganzabal Lazkano, Alejandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ORO-001/005
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:09:19. **Bukatu**: 00:11:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Neskameak
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Ezkondu zen baserriaren argazkia (egitura zaharreko etxe ikusgarria). Kriada, neskame joan zen Laudiora "erdiera" (erdara) ikastearren. Lurrari argizagia eman, garbitasunak egin eta horrelakoak ziren bere lanak.

Transkripzioa

- Eta esan dostazu, gero eskola akabau ta kriada jun ziñala, ezta?

- Bai ba. Eske ordun, euskera berba eiten gendun. Ta lehenago jentea joaten zan krida, erdiera ikasteko.

- Nora fan ziñan?

- Laudiora.

- Laudiora.

- Ta Laudion eitten aben erderaz?

- Han plazan, plazan. Plazeak eukin auden... ta hango etze batera joan nintzen ni krida. Ta zian aizte bi ta neba bat. Ta nebea egoten zan egun

guztietan lan eiten Bilbora. Ta zerak, arrabak, ba esaten ostien, ha eiteko ta hori eiteko. Ta nik lana, lana.

- Zuk eitten zittun etxeko lanak?
- Etxeko lanak bakizu, zelan argizarie emoten zan soruri. Ta halan. Ta eukin auen etzeak, etzea zan, ta gero eskillara bat eukin auen egurrezkoa, beheraño. Ta [...] guztitan, baietea pasetan neindun.
- Brillu atateko? Eta han Laudioko etxe horretan, hori izen zan kaleko etxe bat edo zer izen zan hori?
- Hori zelan zan? Pisu bet zan.
- Pisu bat?
- Bai.

3.2. Uniforme beltza eta amantal zuria, neskame jantzia

- **Hizlaria(k)**: Ganzabal Lazkano, Alejandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ORO-001/008
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:13:02. **Bukatu**: 00:14:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: 19 urtera arte egon zen neskame Laudion. Urte bi egin zituen. Hilean 40 pezeta kobratzen zuen; jantzi eta oinetakoak bere kontura. Ez zitzaion ezer geratzen. Uniforme beltza amantal zuriaz erabiltzen zuen.

Transkripzioa

- Eta hor Laudion zenbat denbora pasau zen?
- Ba nik... hemeretzi urteraarte.
- Eta zenbat urtekin fan ziñan hara?
- Nik ez dakit zenbet urtegaz joango nintzen.
- Alaba: Hemeretzi urterekin ezkondu zan. Ez dakit zenbat urte.
- Zenbat, zenbat urte eingo zittun Laudion?
- Urte bi, pentsetan dot.
- Urte bi?
- Urte bi. Urte bi, pentsetan dot.
- Eta diruik pagaitten otsuein-edo?
- Bai. Ba, berrogei pezeta.
- Hillian, berrogei pezeta?
- Bai. Ta, gero zapatillak erosi bihar, erropea erosi bihar-ta.
- Ta jantzi, jantzi, ez otsuen eitten? Oseake, erropak, erropak zere kontu?
- Neure kontu. Unikamente emoten ostiena zan uniforme. Uniforma baltza, kuello zuriegaz. Ta ba amentala zurie. Ta hagaz, eroan behar nontsien jaten. Ordun hagaz eroten zontsien bazkaiten. Ta errekaduik eiten bere? Hagaz jantziegaz ta amental zuriegaz.

3.3. Ama Birjina Doloretakoari hautsa kentzera

- **Hizlaria(k)**: Ganzabal Lazkano, Alejandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa

- **Erref:** ORO-001/009
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:14:20. **Bukatu:** 00:16:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Jabeek kapila bat zuten elizan, Ama Birjina Doloretakoarena, eta zapaturo joaten zen Ama Birjinari hautsa kentzera. Egunero goizeko seietan mezara, beste neskame batzuekin batera. Ugazaba-andrea eta, zortzietakora joaten ziren. Audioko auzo batera, Latierrora, joaten zen azelgak erostera, oso gogokoak baitzituzten ugazabek.

Transkripzioa

- Ta gero eukin orien elexan, elexan eukin orien kapilla bat, Ama Birjiñian Dolorosetakoa. Ta zapatu guztitan joaten nintzen hautse kenduten, eta hautse kendu...
- Audioko elizan?
- Bai, Laudion krida nengoan lekuin. Laudion, eukin orien... Kapilla bat eukin orien: Ama Birjiña Doloretakoa. Ta hareri ba, zapatu guztietan hautse kendu ta....
- Hori be zure lana zan orduen?
- Zapatu guztitan. Ha, ha ein ta gero etzera.
- Eta mezetara ta, hara kapilla horretara faten ziñen?
- Ta goxeko seiretan, mezara.
- Domekan?
- Astegunetan.
- Egunero?
- Egunero.
- Goizeko seiretan? Mekatxis la mar! Eta jende asko faten zan?
- Bi edo hiru /bi diru/ baiño ez gintzen joaten. Niri ugazabandrak eroaten ostien. Ta eurok joaten ziran zortziretakora. Baia ni goxeko seietarakora. Kridak goxean.
- Kriadak goixien? Klaro, kriadak goizau, ta gero nausixak?
- Eurek zortziretan. Baia gu seiretan.
- Ta egunero hori?
- Egun guzti-guztitan.
- Zuk horratio, zerue irabazitte dekozu!
- Ta gero gustetan jakien berduria, itxuria. Ta joaten nitzen, Latierra, Latierra, joaten nitzen, Laudiotik Gardiarantz, Gardia ez, zererantza, ba azalgak erosten. Azalga-orrik erosi ta harek eroaten ninduzen etxera.
- Ta zu, joaten ziñan...?
- Erosten, erosten. Eurek emoten ostien dirue ta haxe pagau ta azalgak eroaten ninduzen.
- Azalgak bakarrik?
- Bakarrik. Besterik ez gendun eroaten. Nik ez.

3.4. Amabitxiak etxeko alaba bati oparitutako oiloak gobernatzen

- **Hizlaria(k):** Ganzabal Lazkano, Alejandra
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ORO-001/010
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:16:33. **Bukatu:** 00:17:27

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Ugazaben etxeko alabarik zaharrenaren amabitxia Gasteizen bizi zen. Lau oilanda oparitu zizkion eta haiei jaten eman eta arrautzak batu behar izaten zituen Alejandrak. Larunbatero Bilbotik etortzen zen osaba batentzat izaten ziren arrautzok.

Transkripzioa

- Ta gero eurek euki euren, zian aizte bi ta nebea. Nebea joaten zan egun guztitan Bilbora. Baina euki orien horrek, zaharrenak, arrabarik zaharrenak, ba, amabitxi Biturin. Ta bizi zen artean, bizi zen artean, esan orien, ba Biturin eukin oriela, emoten otsien amabitxi zanalez, gari apur bet ekarten orien, lau ollanda eukiten oriezan, lau ollanda. Ta eureri jaten emoten, ta arrauntzak hari, hartuten ginduzan. Ta gustetan jakien zapatuitan, ez kuxitako nik arrontzak. Uzabari gustetan jakon, Bilbotik etorri ordun, ba haek arrontzak kuxu ta eroaten etzera.

4. Familia eta harremanak

4.1. Errekatxoan arropa garbiketak

- **Hizlaria(k):** Ganzabal Lazkano, Alejandra
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ORO-001/006
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:11:32. **Bukatu:** 00:12:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Gallartun ez zuten urik etxean. Orain badute. Errekatxo bat pasatzen zen etxe ondotik eta han egiten zituzten arropa garbiketak. Prozesua azaltzen du.

Transkripzioa

- Ta ordun ez geunken labadorarik eta dana eskuz eitten gendun. Dana eskuz garbitan gendun.
- Eta etxian zerian, Gallartun, ura-ta bazeukatzuen etxien?
- Ez.
- Ta arginddarrrik?
- Gallartun ez geunken urik etzean. Oin badaukie baia ordun, etxe ondolik pasetan zan erreka txarko bat. Ta baldeakaz eroaten gendun etzera ure.
- Eta erropak-eta nola garbitzen zittuen?
- Han errekan.
- Errekan?
- Errekan.
- Zuek lixibie edo puxetie-edo eitten zauben? Sutako hutsakin ta erropak garbitako-ta? Leku batzutan eitten zan lixibia.
- Bai. Hor, ez. Hor etzean, etzean jabonate gendun. Etzean jabonau. Eta garbitu errekan edo han, aklarau. Eroaten gendun, honek bidoiak, bidoiak egurrezkoak. Hori ebagi erditik ta hor, hor, iminten gendun erropea beratuten. Beratu, esaten gontson, bigunduatik. Ta hor jaboie emoten gontsen, ta gero, errekan garbitu. Gero eskegi, ba hor zeran, alanbran.

4.2. Arrosario ostean etxera dantzara beharrean

- **Hizlaria(k)**: Ganzabal Lazkano, Alejandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ORO-001/018
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:29:16. **Bukatu**: 00:30:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena**: Domeka arratsaldetan arrosariora joaten ziren. Ondoren dantza egoten zen baina eurak ez ziren geratzen, bestela gautu egiten zitzaielako. Ez zuten dantzarako astirik. Senarra izango zenaren etxe aurretik pasatzen zen egunero eta horrela ezagutu zuten elkar.

Transkripzioa

- Eta zu gaztetan han Orozkon, dantzara ta nola juate ziñen? Erromerixak-eta egoten zien?
- Ba joaten gintzen, errosario eoten zan, errosarioa arrasteien, laurek edo bostwetan. Ta gero, handik urten orduen, eoten zan jantzea batzuk. Ta gu etxera joaten gintzen, ze gautu eiten jakun. Ta gaubian han zelan ilunean?
- Eta nora faten ziñen errosarixora?
- Olarte, Orozkon.
- Orozkora bai.
- Parrokira.
- Kalera?
- Elexara. Elexara joaten gintzen.
- Alaba: Olarte dago Ibarra, Ibarra da auzo bat. Ta Olarte da parrokia, auzoko parrokia.
- Parrokiara joaten gintzen. Ta handik meztatik urten, ta ez dakit jantzan, ekosten bagendun edozer bere ta etzera. Ez egoan ordun, luz-eletrikarik; ordun petrolioaz. Ta joaten gintzen gauberako etzera.

- Dantzarik, dantzarik eitteko asti barik?
- Ez egoen astirik.
- Ta zelan ezautu zebe zure gizona izengo zana?
- Ba haren etze aurretik pasetan gintzen egun guztitan; mezara ta errekaduik-eta eiten.

5. Politika

5.1. Txerri eta arrautza diruekin kafea, tabakoa, azukrea... erosi

- **Hizlaria(k):** Ganzabal Lazkano, Alejandra
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ORO-001/012
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:20:03. **Bukatu:** 00:21:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Txerrama bat izaten zuten eta hark izandako umeak saldu egiten zituzten, etxerako pare bat utzita gero. Haiekin eta arrautzekin hartutako diruaz kafea, olio, azukrea... erosten zuten. Eta aitarendako tabakorra ere bai. Lehenago olio kuartiluka erosten zen. Amari kafesnea gustatzen zitzaion. Lapikoa irakiten zegoenean urari txingarra sartuta egiten zuten kafea.

Transkripzioa

- Eta orduen txarrixak esan dozu eukitten zittubela. Ta oilluak eta holako gauzak be bai, ezta?
- Gero txarrie, ba, ba henbra bat eukiten gendun. Henbrea zan, ta ernari paraten zan, ta txarrikumak saldu eiten genduzen; ta etzerako itxi bat edo bi. Ta ha dirutxuegaz ba, kafe apurren bat-edo erosiko gendun. Kafea ta orioa lehenago. Lehenago, orioa zan oin lez erosten? kuartillu bet, litroa bez!
- Kuartillo bat?
- Eta ordun nire aitek fumetan euen. Ta esaten zan ba, takakorrie, zera, kajatillia, kajatillia, ta orioa ta azukerea. Eroaten gendun tabernara arraontzak. Arraontzan bat, dozenan bat edo eroango gendun. Ta harexen diruegaz, tabakorrie ta azukerea ta kafea. Nire amak ba, esaten euen estomangue delikedu eukiten euela-ta kafea gustetan jakon, "café con leche", ta kafetxue eiten euen. Ta lehenago tximenipean, han lapikoa, porzelanazkoa lapikoa. Ta irikitian dauenian ordun kafea bota ta txingerra sartu. Txingerra sartu ta holan eiten gendun kafea.

5.2. Auzoko umeak Frantziara gerrari ihesi

- **Hizlaria(k):** Ganzabal Lazkano, Alejandra
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ORO-001/015
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:24:46. **Bukatu:** 00:25:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen

- **Gaia(k):**

Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

- **Laburpena:** Gerra-hegazkinak etortzen hasi zirenean, haitz baten azpira joaten ziren ezkutatzera, Ernu esaten zitzaion lekura. Auzoko ia ume guztiak Frantziara joan ziren ihesi. Baina Aitak esan zuen Alejandra ez zela etxetik irtengo, hil behar bazuen han hilko zela.

Transkripzioa

- Bai. Eta zu gerria hasi zanian, nun egon zintzan, Orozkon? Akordaitten zara, zelan hasi zan gerria?

- Ni akordetan naz ni umia nintzen. Ta ni akordetan naz, aeroplanoak datozela-ta joaten gintzen, hatxa, hatxa egoan, hatxa ba, egoan hurrean. Ta ba, hatxen ondora. Han, han, ez doskuela aeroplanoak joko-ta, hara joaten gintzen..

- Aeroplanoan zaratie entzun ta “ra” hatxan ostera zuek.

- Hara, haraxe. Ernure, joate gintzen. Ernu esaten jakon.

- Eta jente asko joaten ziñien, hara gordetera?

- Auzotxuik bakarrik, auzoak; besteak ez dakit non egongo zien. Eske, asko joan zien Frantzira. Nire aitek esan auen ni ez noala Frantzira. Ni bakarrik pareko nitzen ze ostean, danak eroan oriezan. Esan auen: “hil behar badau, gaugez hil datila”, aitek esan auen. Ta ni ez nitzen joan, baia ostean han auzoko umiak danak Frantzira joan ziren.

6. Herria, azpiegitura

6.1. Petrolio-argia eta beheko sua

- **Hizlaria(k):** Ganzabal Lazkano, Alejandra

- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa

- **Erref:** ORO-001/013

- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:21:38. **Bukatu:** 00:23:00

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen

- **Gaia(k):**

Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

- **Laburpena:** Petrolio argiaz konpontzen ziren. Beheko suan egiten zituzten jan prestaketa guztiak. Sagarrak parrillan erretzen zituzten. Trebera ere bazuten.

Transkripzioa

- Ta holan bizitan... pentse bez hobeto. Ez geunken, argirik pentseu bez. Petroleo argiegaz.

- Karburuakin ez zenbillen?

- Gero, gero, gero karburue. Baia lehenago, petrolioa. Ta petrolioa zan, palue ta holan, ta hak euken, untzea. Ta han untzan sartute gendun petrolioa. Ta han, han zertu.

- Ta harek usaiña euko aban, ezta?

- Ordun, pentse bez useñik. Ordun, pentseu bez. Lehen baiño lehen amatau datin, gastau ez eiteko petrolioa.

- Eta sukaldien txapia betki ezautu dozu-edo?

- Ez, ez geunken guk. Guk, ez geunken.

- Eta zelan eite zebeñ, beheko suan?
- Biheko sue, beti. Beti, biheko sue.
- Ta lehen beheko sue, sukaldian erdixan euan edo ezkiña baten?
- Han parrillan, eiten gendun. Parrillia ba han sagarrak erre parrillan. Ta besterik pentseu bez.
- Eta orduan sartaña ta gauza danak han beheko sutan, ezta?
- Behean, han parrillan.
- Parrillan?
- Parrillan. Han parrillia ta treberea. Treberea, esaten gontsen, hiru, hiru hanka eukni auezan trebereak.
- Lapiku ipintteko, ezta?
- Bai. Ta hantxe.

6.2. Antzerkia, "anaia pobrea"

- **Hizlaria(k)**: Intxaurraga Etxebarria, Agurtzane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxebarria, Idoia
- **Erref**: ORO-025/025
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 01:00:51. **Bukatu**: 01:04:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:

Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak

Aisia » Kultura » Antzerkia

Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Aisia » Kultura

Aisia » Kultura » Zinema

- **Laburpena**: Zinea, telebista eta antzerkia. Antzerkia da "anaia pobrea". 'Goenkale' edo beste serie batzuk hasi zirenean aktore guztiak nahi zuten parte hartu. Gaur egun ere, plataforma digitaletako serie aukera zabalarekin, oso zaila da antzerki obra bateko aktoreak mantentzea; aldiro ordezkapenak egiten ibili behar da, horrek dakarren kostuarekin. Telebistak beste ikusgarritasun bat ematen du, baita diru gehiago ere. Baina hala ere antzerkiak beste xarma bat dauka. Ikusgarritasunari ematen zaion garrantzia. Gaur egun sare sozialak ere kontuan hartzen dira casting bat egiterakoan.

Transkripzioa

- Lehen aittatu dozu, ez? lanbidearen egoera prekarioa ta antzeziakin lotuta hor be badao maillaketa bat, ez? Ba ez da berdiña zinea, telebista ala antzerkia, hedabideetan askoz gutxiago edo, bueno... ez?
- Bai, bai, bai.
- Fokua modu desberdiñian ipintten dala...
- Erabat. Antzerkia da anaje pobrea, o sea, eta garai honetan... Bere garaian gertatu zan, ETB hasi zanean ekoizten, Goenkalegaz, ez? Edo beste serie batzuk. Ba jente... aktore guztiak gure eien /gurein/ edo gure gendun ETBn be bai parte hartu edo serie horreitan. Gero urte askotan egon da desertu bat, eta ordun berriro antzerkia bihurtu zan urte batzutan ba jorratu zan lur hori. Baina garai honetan, plataformak sartu dirala eta ikaragarritzko ekoizpena dago, konpainia modura obra bat ateratzea buuuf erabat aldapatsua da, ba... ba etengabe ba... zauzelako ordezkapenak egin beharrean. Bardin de estrenatu ta gero, estrenatu aurretik, entsaio garaian... ezin dogu, antzerkiak ezin dau zinemagaz edo telebistagaz

konpetitu. Inposiblea da. Eta... eta hori bihurtu da “lastre” bat guretzat. Ba kostu ekonomikoa batetik eta, beste batetik, ba, pertsona modura ere ba “desgaste” handia: denporarena, energia... Ze, bueno, ba, adibidez nere obrak, gehienak, oso koralak dira eta, ordun, bat ordezkatu behar badozu, jo, ba... ba besteentzako ere esfortzua da, eta horrek ez dau itxiten obrak bere horretan handitzen joatea eta. Baiño ja da, nik uste dot, ba, hori, ba... ba taldea daukagunok asumitzen ari garen gauza bat dala /batala/. Hau da orain jolasteko zelaia: hauek dira arauak eta arau horreitan zu zara txikitxuena. Eta gero, eta gaur proiektu bat ikaragarrikoa - berdin dau, e, berdin du esatea “egongo naz hiru hilabete Centro Dramático Nacional-en”, edo bardin de telebistan edo zineman ateratzen badire sei sesiño -, hori hartuko dala. Zergatik? Eeee... pues emoten dauelako beste ikusgarritasun bat, dirua be bai, noski, hori oso garbi, ze antzerkitik bakarrik Euskal Herrian gutxitan ahal zara bizi, kasu batzuk badagoz, baina gutxitan. Baiño halan da be, halan da be, hor dago: beste xarma bat dauka ikusgarritasun horrek, ez? Eta horregatik nahi dot... bizi garelako dana ikusgarritasun horren munduan, ez? Nork zu ikusiko eta nork eukiko lagun gehiago sareetan. Eta ze, orai, kastiñak (castingak) ere egiten direnean, asko begiratzen dabe: ez da ja fisikoa bakarrik, ez, ez, zenbat lagun dituzun sareetan. Eta zuk aktore bi imajinatu, bi aktore badaude eta batek ditu -ez dakit- milioi bat lagun eta besteak mila, ba, argi eta garbi joango dira beste horrengana.

7. Aisia

7.1. Beste emakume batzuekin hitz egitearen eta partekatzearen garrantzia

- **Hizlaria(k):** Intxaurraga Etxebarria, Agurtzane
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxebarria, Idoia
- **Erref:** ORO-025/023
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:54:29. **Bukatu:** 00:57:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kultura » Antzerkia
 - Aisia » Kultura
 - Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Agurtzaneren lankideak neskek diren arren, oholtzaren inguruan mugitzen diren gehienak gizonezkoak dira. Atzera begiratuta, asko borrokatu behar izan duela ikusten du. Garrantzitsua da beste emakume eta neska gazte batzuekin hitz egitea eta partekatzea.

Transkripzioa

- Eta neskek dia zurekin lanian dabitzenak?
- Bai, bai, bai, nigez lanean neskek dabiz eta gero gertatzen dana da... ba beitu, klaro, zuzendari zarenean ekipo haundiekin lan egin behar duzu eta askotan, urte askotan, gizonezkoak izan dira. Bat, e, igual eszenatokikoak ez, baina eszenatoki inguru guztia, inguru guztia, gizonezkoa izan da. Eta eeee... baino, bueno, bai uste dot ere azkenean sortzaileak diranak eta, jo, ba enpatia hori badaukatela, ez? Edo garatuagoa edo... ni behintzat orain ez naz /enaz/ sentitzen iñolaz ere baztertua, ez? Ba igual urteakaz be bai, ba bueno, ba jenteak esan dotsut... ba bueno, ba jentea badoa zure lana baloratzen edo... eta hori ez dot sentitan orain, ez? Baina atzera eginda, bai, jabetuten naz ez dala batere erraza izan. Eta hemen mantentzea ere

ez da erraza, o sea... ez da batere erraza eta askotan, ba hori, esaten dot "jo...", ze etxean ere igual esaten doste: "jo, baiña mereziotsu /merezi dotsu/? Ze beitu, o sea, zagoz... igual zeure konture ein eta utzi proiektua" eta... Baiña, bestalde, korajea ematen doste esatea "jo, honeraiño iritsi banaz, referenteak behar doguz be bai", eta horrek emoten doste korajea esateko "benga". Ja ez dot jartzen epe luze bat, ba lehen moduan: "Ez, hamar urte barru, pa pa...". Ez, ez dot iñon ikusten. O sea, hori... holan ez dot lan egiten ja, ez? Gehiago da: ba urte bat, bi urtera, aukera izanda, hau egingo neunke, beste hau egingo neunke, honegaz lan egingo neuke, hau kontatzeko. Baiño bai, eta inportantea da beste batzukaz hontaz berba eitea, batez ere beste neskato, beste andrazko batzukaz berba eitea, partekatzea: zu zelan sentitan zara, eta zelan zagoz, eta... niretzat hori bada inportantea. Gizonezkoakaz be bai, baiño ziurrenik ez zara... batzutan moztu eiten naz. Zergatik? Ba... zuk esaten badozu: ez, beitu, noski badaudela kristalezko sabaiak-eta, etengabe daukazu beldur hori "¡ya se está quejando ésta!" Ulertzen? Ja betiko kontua. Eta horrek egiten gaitu - edo ni behintzat egiten nau -: "segi lanean, benga, ekin, segi lanean". Ordun, ba, bueno, horregatik bada partekatze hau beste andrazko batzukaz ia nola sentitan diran eurak, zergatik hau, zergatik ez, zergatik ez dozu zuk umerik euki, zergatik... nola egin dozu aurrera lanagaz, zein da zure hurrengo proiektua... ba, bueno, ba oso inportantea da.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Kako-erreka izenaren jatorria (ORO-013/001)

Deabrua eta San Martini buruzko ipuinaren bukaera kontatzen du. Kako-erreka izena nondik datorren kontatzen du.

2. Jauregiko neskamearen kondaira (ORO-013/002)

Jauregiko neskameari gertatutako kontuak kontatzen ditu.

3. Laminei buruzko kondaira (ORO-013/003)

Laminei buruzko kondaira kontatzen du.

4. Gerra garaiko kontu sinesgaitza (ORO-013/004)

Bere nebari gerra garaian gertatuko kontu miragarria kontatzen du.

5. Lamina batekin maitemindu zen mutilaren kondaira (ORO-013/005)

Lamina batekin maitemindu zen mutilaren kondaira kontatzen du.

6. Laminen beldur, ezin azazkalik moztu (ORO-013/006)

Laminak ogi eske etortzen zirela sarri kontatzen du. Bere amak astearte eta ostiraletan ez omen du azazkalik moztzen uzten; bestela, laminak etortzen omen dira orraziarekin. Laminek azazkalen ordeaz, erpeak dituztela dio.

7. Apaizaren eta sorginen kondaira (ORO-013/007)

Apaizak errezatu egiten zuen hodeietatik harririk edo txingorrik ez erortzeko. Kanpaiak jotzen zituzten jendeak ere errezatu zezan. Hainbat kondaira kontatzen ditu.

8. Arditara joan zen neskaren eta laminen kondaira (ORO-013/008)

Laminak zelan desagertu ziren kontatzen du. Norbaitek lamina zeukanean, deiadarka hasten zen ezin hilda, eta lamina zerbaiti ematen omen zioten. Arditara joan zen neskaren eta laminen kondaira.

9. Neskamearen eta lan eske hasten ziren laminen kondaira (ORO-013/009)

Sorginak edo laminak kutxatxo txikietan gordetzen zituzten eta handik ateraz gero, jakin egin behar zen haiek berriz barrura sartzen. Neskamearen eta lan eske hasten ziren laminen kondaira.

10. San Juan garaiko bedeinkazioaren eta sorginen kondaira (ORO-013/010)

San Juan eguna baino lehen eta ondoren, apaizak soroak bedeinkatzen zituen. Horri loturiko kondaira kontatzen du.

11. Pagoaren gainetik sorginak entzun zituenaren kondaira (ORO-013/011)

Pagoaren gainetik sorginen kontuak entzun zituen gizonaren kondaira. Erreginaren alaba sendatu zuen, sorginei entzundakoaren bitartez.

12. Araoa gaizki esan zuen gizonaren kondaira (ORO-013/012)

Araoa gaizki esan zuen gizonaren kondaira. "Laino guztien gainetik eta mata guztien azpitik", esan omen zuen.

13. Sukaldeko gizonaren eta sorginaren kondaira (ORO-013/013)

Morokila egiten ari zen gizonaren eta sorginaren kondaira.

14. Purgatorioko arimak (ORO-013/015)

Arimak zergatik agertzen ziren azaltzen du. Purgatorioan zeudenak izaten omen ziren.

15. "Izatez bizkaitarra naiz eta lanbidez donostiarra" (ORO-025/002)

Orozkoarra da Agurtzane. Kazetaritza ikasketak egiten zebilela, udaletxean itzultzaile lanpostua lortu zuen. Baina betidanik dantza eta antzerkirako gogoa izan duenez, lehenengo soldatarekin dantza klaseetan hasi zen Laudion. Oliteko jaialdi batean ezagutu zuen jendeak bizitza aldatu zion. 'Maskarada' antzerki taldearen "Gastibeltzaren karabinak" obrarako casting-erako deitu zioten baina ez zuten hartu. Handik gutxira lagun batekin Donostiako 'Antzerti' erakunderako probetan izena eman zuen eta hartu egin zuten. Erabaki zaila izan zen dena utzi eta 20 urterekin Donostiara etortzea. 1983. urtea zen.

1989an 'Hika Teatroa' sortu zuten. Familia ere Donostian sortu du. Haiek gipuzkoarrak dira baina berak bizkaitarra izaten jarraitzen duela dio.

16. 'Hika Teatroa'-n aktore izatetik zuzendari izatera (ORO-025/004)

'Hika Teatroa'-n aktore moduan hasi zen eta geroago zuzendari lanak ere egiten zituen. Ama izan ondoren, "Ai ama!" (2002) lana sortu zuten eta momentu horretan denbora batez eszena gainean ez egoteko erabakia hartu zuen. Antzerkigile eta zuzendari lana zenbat gustatzen zitzaion konturatu zen orduan. Arantxa Iturberekin batera aritu zen 10 bat urtez. Hainbat lan idatzi zituzten: "Ai ama!", "Ixa", "Aitarekin bidaian", "Koadernoia zuri", "Zeta"... Azken urteetan Iturbe gabe dabil.

17. Emakume izateagatik bere lana zalantzan jartzen zuten (ORO-025/006)

Gurasoei gogorra egin zitzaizen neska izanda antzerkigintzara dedikatzeko erabakia. Herrian ere zeresana eman zuela uste du. Dagoeneko 'Hika Teatroa' taldean zebilela, gogoan du ETBko saio baterako aktore aukeraketa bat; nesken fisikoan oinarritu ziren erabat. Emakumeak gorputz barik gutxitan iritsi dira inora telebistan edo zineman. Zuzendari izatea erabaki zuenean, bere lana askotan zalantzan jartzen zuten, baita taldean bertan ere. 'Goenkale'-n zuzendari lanetan hasi zenean hasiera gogorra izan zen, izen handiko aktore batzuek "neskato hasiberri batek" zuzentzea ez zutelako begi onez ikusten.

18. Beti bere balioa frogatzen ibili behar (ORO-025/007)

Emakumea izateagatik, beti bere balioa frogatzen ibili behar izan duenaren sentazioa dauka. Horrek bere buruari asko exijitzea ekarri dio. 2009tik aurrera 'Hika Teatroa' berak kudeatu du eta jendea bere lana gehiago kontutan hartzen hasi da. Hala ere askotan ateak jo behar izaten ditu, ziurrenik gizonezkoa izan balitz ez litzateke horrela izango. Oso langilea izateari esker lortu ditu gauza asko. Sormenaren arloan lan egitearen zailtasunak aipatzen ditu.

19. "Emakume kontuak" (ORO-025/008)

Askotan entzun du antzezlanetan "emakumeen kontuak" jorratzen dituela. Arantxa Iturberi eta berari aspaldi etiketa hori ipini zitelako uste du. "Txarriboda" idatzi zuenean batzuek ez zuten sinesten horrelako narrazio basatia berak idatz zezakeenik. Aurretik idatzi zuten "Ixa" askoz basatiagoa zen baina kasu gutxi egin zioten momentu hartan. Batzuentzat amatasuna, zaintza, tratu txarrak... "emakumeen gaiak" dira. Arte eszenikoak gizartearen isla dira: historia klasiko handiak gizonezkoek gizonezkoentzat idatziak izan dira. Heriotza, mendekua, traizioa... gizonezkoekin lotzen dira.

20. Emakumeen ahalduntzearen garrantzia (ORO-025/009)

Gaur egun emakume asko hasi da istorioak kontatzen. Agurtzane bera obedientzian eta isiltasunean hezia izan da eta horrek norberarengan segurtasun falta sortzen du. Askotan gizonezko baten aurrean isildu egin izan da eta txiki sentitu da. Belaunaldi berriak askoz ausartagoak dira. Agurtzanearentzat eszena izan da bere errebeldia gunea eta bera den bezala azaltzeko tokia. Baina hortik kanpo askotan isildu egin da. "Zenbatetan ez diot ahoa itxi aurrean dudan gizonari!"

21. Emakumearen tokia arte eszenikoetan (ORO-025/011)

Orain arte emakumeen antzerkia ez da izan gizonezkoena bezain erakargarria publikoarentzat. Emakumeak oraindik ere gorputzagatik edo adinagatik gehiago epaitzen dira. Gero eta emakume zuzendari gehiago egon arren, gizonezko gehiago dago. Emakume antzerkigileak gutxi ziren duela gutxira arte, eta gainera gutxiago ausartzen ziren gizonezkoak baino. Gaur egun oraindik emakumezko teknikari gutxi dago, gizonezkoen mundua da erabat. Jantzitegia eta makillajea, aldiz, emakumeena da. Banaketan andrazko asko dago eta haien lana ere gogorra da, lehendabizi euren burua saldu behar baitute. Arte eszenikoetan emakumeak periferian daude oraindik. Izen batzuk aipatzen ditu, lehengoak eta oraingoak.

22. Amatasuna eta itxura fisikoa, lan mundurako oztopo (ORO-025/013)

Antzerki ikasketetan emakumezko gehiago egon arren, gero lan munduan bukatzen dutenak gizonezkoak gehiago dira. Amatasuna eta fisikoa dira arrazoi nagusiak, Agurtzaneren ustez. Bere kasuan, 3 seme ditu eta lana eta amatasuna uztartu ahal izan ditu, baina askotan emakumeek profesionalki atzera egiten dute (edo ez diete aurrera egiten uzten...). Etengabe produzitzen egon beharra eta amatasuna askotan ez dira bateragarriak. Hori gizonezkoek ez zaie gertatzen. Fisikoa eta adina ere emakumeetan gehiago epaitzen dira.

23. Emakumeen fisikoa eta adina jomugan (ORO-025/014)

Arte eszenikoetan gizonezkoen itxura fisikoa ez da hainbeste epaitzen. Gizonek ez dute zaintzeko behar hori sentitu, emakumeek aldiz beti eder eta gazte egotea eskatzen zaie. 'Goenkale'-n lanean egon zen eta han itxurari garrantzi handia ematen zitzaion. Ez daki zenbateraino aldatu diren gauzak. Emakumezko aktore asko 40 urtetik gora desagertu egiten dira telebista eta zinematik.

24. Zaintzaren pisua oraindik ere emakumeengan dago (ORO-025/016)

Lana eta familia uztartzeko ingurune sostengatzailea beharrezkoa da. Baina ingurune hori ere emakumezkoa da, eta horren kontra dago. Kosta egiten zaio etxeko zereginak egiteko emakume bati ordaintzea. Zaintza gero eta gehiago andrazkoena bihurtzen ari da. Mediku eta erizain gehienak emakumeak dira; ingeniariak, berriz, gizonezkoak. Oraindik ez ditugu rolak aldatu.

25. Oraindik ez ditugu genero rolak aldatu (ORO-025/017)

Gizarte sexualizatu batean bizi gara. Emakume ereduak ez da aldatu, rol tradizionalak hor jarraitzen dute. Beste gizarte batzuetan oraindik ere emakumea bigarren mailakoa da, baina hemen ere ez da denbora asko hala izan zela.

26. Konplize profesionalak lortzea zailagoa da emakumeentzat (ORO-025/018)

Emakumezkoek etengabe talentua demostratzen egon behar izan dute beti. Esfortzu gehiago egin behar dute eta oztopo gehiago gaintu. Arte eszenikoen munduan emakumea izanda konplizeak lortzea ez da hain erraza.

27. "Politikoki zuzena"ren tranpa (ORO-025/019)

Obra baten zuzendaria gizonezkoa ala emakumezkoa izan, publikoa jarrera desberdinarekin joaten zen ikustera. Gaur egun "politikoki zuzena" izatearen tranpa ere badago: berdintasun legeetako kopuruak betetzeko emakumeak kontratatzea.

28. Emakumezko bati lekua uzteko gizonezkoen zailtasuna (ORO-025/021)

Gizonezkoek zailtasunak dituzte emakumezko bati lekua uzterako garaian. Emakume askok borroka horretan ez sartzeagatik atzera egin izan dute.

29. Lan egiteko moduaren ikuspegi desberdinak (ORO-025/022)

Gizonezkoen lan egiteko modua goitik behera izan da; aldiz emakumeena horizontalagoa, kooperatiboagoa. Askotan botere lekuetan dauden emakumeek ere gizonezkoen ereduak errepikatzen dituzte. Arte eszenikoetan eskaintza handia dago gaur egun eta horrek konpetentzia dakar. Pandemiak onerako aldaketa ekarriko zuela uste zen, baina alderantziz izan da. Emakumeek beste ikuspegi bat daukagula uste du Agurtzanek, agian ahotsa eman ez digutenez, entzutera eta begiratzen ohituago gaudelako. Bere enpresan horizontaltasun hori izaten saiatzen da.

30. Antzerki obrak bi hizkuntzatan, lan bikoitza (ORO-025/026)

Euskararen aldeko "militantziak" lan eta kostu bikoitza ekartzen du. Gaur egun hizkuntzari baino gehiago aktore taldeari begiratzen zaio, ez zaio iruditzen publikoak euskaraz estreinatzearen esfortzu hori benetan baloratzen duenik.

31. Aretoko helduen antzerkia da gehien baloratzen dena (ORO-025/028)

Antzerki barruko mailaketa: aretoko helduen antzerkia, antzerki familiarra edo kaleko antzerkia. Gehiago baloratzen da helduen aretoko eta Agurtzanerentzat ez dauka zentzurik. Ipuin-kontalari gehienak emakumeak badira ere, gizonezkoen izenak gehiago gogoratzen ditugu. Aktoreekin berdind gertatzen da. Aitziber Garmendia aipatzen du salbuespen gisa.

32. Umorea eta emakumeak (ORO-025/029)

Badirudi umorea gizonezkoen eremua izan dela. Emakumeak beti isilean egon garenez, txistek kontatzeak ere lotsa ematen digu askotan. Egon badaude emakume "salerosak" baina ez dute plazara ateratzeko aukerarik izan. Momentu honetan euskal antzekiko adibide handiena Aitziber Garmendia da. Umorea azkarra egitea oso zaila da eta asko baloratzen du. Umorea arinak nazkatuta dauka; obra bati eskatzen diona "inpregnatzea" da.

33. Telebistako aurkezleen itxura (ORO-025/031)

Telebistako aurkezleen janzkera. Eguraldiko aurkezleen itxura eta adina.

34. Estereotipoak antzezlanetan (ORO-025/032)

Estereotipoak antzezlanetan. Emakume asko idazten eta beste eredu batzuk balioan jartzen hasi dira. Berdintasunerako bidea gizonezkoen lana era bada. Askok ez dituzte euren pribilegioak galdu nahi. Gizonezkoek postu gehiago okupatu dituzte emakumeek baino. Mitoak sortzen dituen lanbide bat da.

35. Andrazko protagonista gutxi (ORO-025/033)

Aktore emakumeen paperak murriztuagoak izan dira beti. Orokorrean emakume protagonista gutxi daude. Adin batetik aurrera badirudi ez direla interesgarriak. Hala ere, hasi gara zahartzaroari buruz gehiago hitz egiten. Publikoaren gehiengoa emakumea eta adinekoa da. Beste gai batzuk antzerkian, emakumeen ikuspuntutik.

36. Madril vs Euskal Herria (ORO-025/035)

Madriren askoz aktore eta lan gehiago dago. Orain arte jendeak kanpora atera behar izan du ikastera, hemen ez zelako eskolarik. Baina gaur egun aukera eta baldintza onak daude Euskal Herrian.

37. Diziplina arteko nahasketa (ORO-025/036)

Obra berritzaileak ikus daitezke gaur egun. Sektorea asko garatu da eta diziplina ezberdinak nahasten dira askotan. Aldiz, Agurtzanek ez du ikusten belaunaldi berrietan egitura bati lotuta lan egiteko gogoia.

38. "Sari bat besarkada edo txalotze bat da" (ORO-025/039)

Zuzendari onenaren saria eman zioten 2022an Errioxan. Lehen saria 2005ean eman zioten eta ikaragarria izan zen beretzat. Hirugarren sari bat ere jaso zuen 2022an. Sari bat besarkada edo txalotze bat da, baina benetako saria sormena duintasunez baloratzea da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-05-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com